LASARTE-ORIA
UDALA-AYUNTAMIENTO

# UDALBATZARRA/PLENO MUNICIPAL Nº 06/2019

LASARTE-ORIAKO UDALBATZARRAK **2019 KO APIRILAREN 9AN** EGINDAKO **OHIKO BATZARRALDIAREN** AKTA.

ACTA DE LA **SESIÓN ORDINARIA** CELEBRADA POR EL PLENO MUNICIPAL DEL AYUNTAMIENTO DE LASARTE-ORIA EL DÍA **9 DE ABRIL DE 2019.**

| ETORRITAKOAK: | ASISTENTES: | |
|---|---|---|
| ALKATE LEHENDAKARIA: ALCALDE-PRESIDENTE: | D. Jesús Zaballos de Llanos jn. | (PSE-EE-PSOE) |
| ALKATEORDEAK: TENIENTES DE ALCALDE: | Dª Lourdes Acevedo Beldarrain and. | (PSE-EE-PSOE) |
| | D. Agustín Valdivia Calvo jn. | (PSE-EE-PSOE) |
| | Dª Maite Iglesias Sánchez and. | (PSE-EE-PSOE) |
| | D. Jesús Alonso Ocáriz jn. | (PSE-EE-PSOE) |
| | Dª Nuria Fernandez Castrillo and. | (PSE-EE-PSOE) |
| ZINEGOTZIAK: CONCEJALES: | D. José Mª Urdampilleta Zubitur jn. | (PSE-EE-PSOE) |
| | D. Pablo Barrio Ramirez jn | (EH BILDU) |
| | Dª Leire Elizegi Beloki and. | (EH BILDU) |
| | D. Gorka Lizarraga Erro jn. | (EH BILDU) |
| | Dª Estitxu Alkorta Barragán and | (EAJ-PNV) |
| | D. Jon Antxordoki Rekondo jn. | (EAJ-PNV) |
| | D. Arkaitz Naya Carrasco jn. | (ADLOP) |
| | D. David Ares Rodriguez jn. | (ADLOP) |
| | Dª Alicia Garcia Patino and. | (ADLOP) |
| | D. Alejandro Sáenz Muriel jn. | (PP) |
| IDAZKARIA: SECRETARIO: | D. Fco. Xabier A. Egea Jauregi jn. | |

| EZ ETORRIAK: | NO ASISTENTES: | |
|---|---|---|
| CONCEJALES: ZINEGOTZIAK: | Dª Kristina Bernal Etxeberria and. | (EH BILDU) |
| KONTUHARTZAILEA: INTERVENTOR: | D. Ion Murua Guinea jn. | |


Kale Nagusia 22, 20160 Lasarte-Oria (Gipuzkoa) | ✆ 0034 943 376055 | ✉udala@lasarte-oria.eus | IFZ/NIF P2009500F

Lasarte-Oriako Udaletxeko Batzar-Aretoan, 2019ko APIRILAREN 9ko 18:30 zirelarik, aldez aurretik horretarako deialdia eginda, Lasarte-Oriako Udalbatzar osoa bildu zen, Jesús Mª Zaballos de Llanos Alkate jaunaren lehendakaritzapean, gorago aipatzen diren alkateordeak eta zinegotziak bertan zirela, eta nik urgatzita, Francisco Xabier A. Egea Jauregi idazkari jaunak, geroago esango diren erabakiak hartzeko.

En la Sala de Plenos del Ayuntamiento de Lasarte-Oria, siendo las 18:30 horas del día 9 de ABRIL de 2019, previa citación al efecto, se reunió el Pleno Municipal del Ayuntamiento de Lasarte-Oria, bajo la Presidencia del Sr. Alcalde D. Jesús Mª Zaballos de Llanos, con la asistencia de los Tenientes de Alcalde y Concejales que arriba se relacionan, y asistidos de mí, el Secretario D. Francisco Xabier A. Egea Jáuregui, para tomar los acuerdos que luego se dirán.

Udalbatzarra eratzeko "quorum" nahikoa badagoenez gero, Alkate jaunak eratua deklaratzen du udalbatzarra, eta, haren aginduz, bilkurako gai-zerrendan sartutako gaiak tratatzeari ekiten zaio.

Existiendo "quórum" suficiente para la constitución del Pleno, el Sr. Alcalde declara constituido el Pleno y de su orden se pasa a tratar sobre los asuntos incluidos en el Orden del Día.

1.- 2018KO URRIAREN 31, AZAROAK 13, AZAROAK 28, ABENDUAK 11 ETA ABENDUAK 28AN OSPATUTAKO BATZARREN AKTEN ONARPENA.

1.- APROBACIÓN DE LAS ACTAS DE LAS SESIONES CELEBRADAS LOS DÍAS 31 DE OCTUBRE, 13 Y 28 DE NOVIEMBRE, 11 Y 28 DE DICIEMBRE DEL AÑO 2018.

Bozkatzera jarrita, Lasarte-Oriako Udalbatzarrak, AHO BATEZ, ONARTU egiten ditu haiek.

Sometida a votación, el Pleno del Ayuntamiento de Lasarte-Oria, por UNANIMIDAD, APRUEBA las mismas.

2.- 2019KO MARTXOAREN 27AN ALKATEAREN EBAZPENAREN BIDEZ ONARTUTAKO 2018KO EKITALDIAREN AURREKONTUAREN LIKIDAZIOAREN BERRI EMATEA.

2.- DACIÓN DE CUENTA DE LA LIQUIDACIÓN PRESUPUESTARIA DEL EJERCICIO 2018, APROBADO POR RESOLUCIÓN DE ALCALDÍA DE 27 DE MARZO DE 2019.

Udalbatzarrari Udaleko Aurrekontuaren 2018. urteko ekitaldiaren likidazioaren berri eman zaio. Alkateak, 2019ko martxoaren 27(e)an, hartutako ebazpenaren bidez onetsi zuen likidazioa, ondoko emaitza honen arabera:

Se da cuenta al Pleno de la Corporación de la liquidación presupuestaria del Ayuntamiento del ejercicio 2018, aprobado por Resolución de Alcaldía de 27 de marzo de 2019, de acuerdo con el siguiente resultado:


Kale Nagusia 22, 20160 Lasarte-Oria (Gipuzkoa) | ✆ 0034 943 376055 | ✉udala@lasarte-oria.eus | IFZ/NIF P2009500F

| **ALTXORTEGIKO GELDIKINA** *REMANENTE TESORERÍA* | | |
|---|---|---|
| 1. (+) Funts likidoak Fondos líquidos | | 2.176.616,18 |
| 2. (+) Kobratzeko dauden eskubideak Derechos pendiente de cobro | | 14.242.872,42 |
| * - **(+) urteko aurrekontukoak** *del Presupuesto corriente* | 2.501.109,82 | |
| * - **(+) itxita dauden aurrekontuetakoak** *de Presupuestos cerrados* | 966.938,92 | |
| * - **(+) aurrekontuz kanpoko eragiketetatik eratorritakoak** *de operaciones no presupuestarias* | 10.774.823,68 | |
| 3. (-) Ordaintzeko dauden obligazioak Obligaciones pendiente de pago | | -3.215.389,48 |
| * - **(+) urteko aurrekontukoak** *del Presupuesto corriente* | 1.914.716,56 | |
| * - **(+) itxita dauden aurrekontuetakoak** *de Presupuestos cerrados* | | |
| * - **(+) aurrekontuz kanpoko eragiketetatik eratorritakoak** *de operaciones no presupuestarias* | 1.300.672,92 | |
| 4. (+) Aplikatzeko dauden partidak Partidas pendientes de aplicación | | 590,40 |
| * - **(-) egindako kobrantzak, behin betiko aplikatzeko daudenak** *cobros realizados pendientes de aplicación definitiva* | 100,00 | |
| * - **(-) egindako ordainketak, behin betiko aplikatzeko daudenak** *pagos realizados pendientes de aplicación definitiva* | -690,40 | |
| **I. Diruzaintzako gerakina, guztira (1 + 2 - 3 +4)** **Remanente de tesorería total** | | **13.204.689,52** |
| * **Saldo kobragaitzak:** *Saldos de dudoso Cobro:* | | -162.573,34 |
| **ALTXORTEGIKO GELDIKIN LIKIDOA** REMANENTE TESORERÍA LÍQUIDO | | **13.042.116,18** |
| * **Finantzazio lotuko gastuetarako altxortegiko geldikina:** *Remanente tesorería para gastos con financiacion afectada:* | | 0,00 |
| * **Kupoaren ordainketako desbiderapenari lotutako altxortegiko geldikina:** *Remanente tesorería afectado a desviación Pago del Cupo:* | | 0,00 |
| **GASTU OROKORRETARAKO ALTXORTEGIKO GELDIKINA** REMANENTE DE TESORERÍA PARA GASTOS GENERALES | | **13.042.116,18** |
| **KREDITU-GELDIKINEN TOTALA:** *TOTAL REMANENTES DE CRÉDITOS:* | | |
| **Erants daitezkeen kredituen totala** *Total Créditos susceptibles de incorporación* | | 3.998.396,36 |



Kale Nagusia 22, 20160 Lasarte-Oria (Gipuzkoa) | ✆ 0034 943 376055 | ✉udala@lasarte-oria.eus | IFZ/NIF P2009500F

| | | |
|---|---|---|
| **Erantsi ezin diren kredituen totala**<br>*Total Créditos no incorporables* | | 4.840.606,36 |
| **AURREKONTUKO EMAITZA**<br>*RESULTADO PRESUPUESTARIO* | | |
| **Aurtengo aurrekontuko operazioengatiko emaitza**<br>*Resultado por operaciones del presupuesto actual* | | 4.118.572,32 |
| **Aurreko ekitaldietan likidatutako aurrekontuetako operazioengatiko emaitzak**<br>*Resultado por operaciones de presupuestos liquidados de ejercicios anteriores* | | -392.132,84 |
| **AURREKONTUKO EMAITZA (doitu aurretik)**<br>*RESULTADO PRESUPUESTARIO (antes de ajustes)* | | **3.726.439,48** |
| **Aurrekontuko emaitzari egindako doitzeak:**<br>*Ajustes al Resultado Presupuestario:* | | 1.339.380,96 |
| * **Altxortegiko geldikinaren bitartez finantzaturiko obligazioak:**<br>*Obligaciones financiadas con Remanente de Tesorería* | 1.339.380,96 | |
| * **Ekitaldiari egotz dakizkiokeen finantzazio-desbideratze positiboak**<br>*Desviaciones positivas de financiación imputables al ejercicio* | | |
| * **Ekitaldiari egotz dakizkiokeen finantzazio-desbideratze negatiboak**<br>*Desviaciones negativas de financiación imputables al ejercicio* | | |
| **AURREKONTUKO EMAITZA DOITUA**<br>*RESULTADO PRESUPUESTARIO AJUSTADO* | | **5.065.820,44** |

Udalbatzarra jakitun geratzen da.

El Pleno se da por enterado.

## 3.- 2019KO AURREKONTUKO 1. KREDITU TXERTAKETEN BIDEZ EGINDAKO 1.GO KREDITU ALDAKETAREN KONTU EMATEA.

## 3.- DACIÓN DE CUENTA DEL EXPEDIENTE DE MODIFICACIÓN DE CRÉDITOS Nº 1 MEDIANTE INCORPORACIÓN DE CRÉDITOS DEL PRESUPUESTO DE 2019.

Ikusirik Ekonomiako, Ogasuneko eta Ondareko Batzorde Informatiboak eta Kontuetako Bereziak 2019ko apirilaren 1(e)an egindako bilkuran emandako diktamina.

Visto el dictamen emitido por la Comisión Informativa de Economía, Hacienda, Patrimonio y Especial de Cuentas en sesión celebrada el día 1 de abril de 2019.

Kredituak aldatzeko espediente hauen berri ematen da:

Se da cuenta de los siguientes expedientes de Modificación de Créditos:

Lasarte-Oriako Udalaren 2019(e)ko aurrekontuko 1. KREDITU TXERTAKETAK Espedientea, 3.998.396,36 eurokoa, Alkateak 2019ko martxoaren 28(e)an emandako ebazpenaren bidez onetsia.

Expediente de INCORPORACION DE CREDITOS nº 1 del presupuesto 2019 del Ayuntamiento de Lasarte-Oria, por un importe de 3.998.396,36 euros, aprobado por Resolución de Alcaldía de fecha 28 de marzo de 2019.


Kale Nagusia 22, 20160 Lasarte-Oria (Gipuzkoa) | ✆ 0034 943 376055 | ✉udala@lasarte-oria.eus | IFZ/NIF P2009500F

Udalbatzarra jakitun geratzen da.

El Pleno se da por enterado.

**4.- 2018KO AURREKONTUAREN KREDITU TRANSFERENTZIAREN BITARTEZ EGINDAKO 2. KREDITU ALDAKETAREN ESPEDIENTEAREN KONTU EMATEA.**

**4.- DACIÓN DE CUENTA DEL EXPEDIENTE DE MODIFICACIÓN DE CRÉDITOS Nº 2 MEDIANTE TRANSFERENCIA DE CRÉDITOS DEL PRESUPUESTO DE 2018.**

Ikusirik Ekonomiako, Ogasuneko eta Ondareko Batzorde Informatiboak eta Kontuetako Bereziak 2019ko apirilaren 1(e)an egindako bilkuran emandako diktamina.

Visto el dictamen emitido por la Comisión Informativa de Economía, Hacienda, Patrimonio y Especial de Cuentas en sesión celebrada el día 1 de abril de 2019.

Kredituak aldatzeko espediente hauen berri ematen da:

Se da cuenta de los siguientes expedientes de Modificación de Créditos:

Lasarte-Oriako Udalaren 2018(e)ko aurrekontuko 2. KREDITU TRANSFERENTZIAK Espedientea, 58.778,48 eurokoa, Alkateak 2018ko abenduaren 28(e)an emandako ebazpenaren bidez onetsia.

Expediente de TRANSFERENCIA DE CRÉDITOS nº 2 del presupuesto 2018 del Ayuntamiento de Lasarte-Oria, por un importe de 58.778,48 euros, aprobado por Resolución de Alcaldía de fecha 28 de diciembre de 2018.

Udalbatzarra jakitun geratzen da.

El Pleno se da por enterado.

**5.- EKINTZA SOZIALEN BEREZKO JARDUN-EREMUAN JARDUERAK EGITEN DITUZTEN PERTONA EDO ELKARTEEI ZUZENDUTAKO DIRU-LAGUNTZEN OINARRIEN ONARPENA.**

**5.- APROBACIÓN BASES ESPECÍFICAS SUBVENCIONES A PERSONAS O ASOCIACIONES QUE REALICEN ACTIVIDADES EN EL ÁMBITO DE ACCIÓN SOCIAL.**

Ikusirik Zerbitzu Sozialak, Berdintasuna, Kooperazioa eta Osasun Batzorde Informatiboak 2019ko martxoaren 11(e)an egindako ez-ohiko bilkuran emandako diktamina.

Visto el dictamen emitido por la Comisión Informativa de Servicios Sociales, Igualdad, Cooperación y Salud, en sesión extraordinaria celebrada el día 11 de marzo de 2019.

Bozkatzera jarrita, Lasarte-Oriako Udalbatzarrak AHO BATEZ, honako akordioa hartzen du:

Sometida a votación, el Pleno del Ayuntamiento de Lasarte-Oria por UNANIMIDAD, toma el siguiente acuerdo:


Kale Nagusia 22, 20160 Lasarte-Oria (Gipuzkoa) | ✆ 0034 943 376055 | ✉udala@lasarte-oria.eus | IFZ/NIF P2009500F

**Lehena eta bakarra.-** Ekintza Sozialen berezko jardun-eremuan jarduerak egiten dituzten pertsona edo elkarteei zuzendutako diru-laguntzen oinarriak ONARTZEA.

**Primero y único.-** APROBAR las Bases específicas de las Subvenciones a personas o asociaciones que realicen actividades en el ámbito de acción social

6.- "EUSKARA SUSTATZEKO EKINTZA PLANA (ESEP) LASARTE-ORIAN 2019-2022" ONARPENA.

6.- APROBACIÓN DEL PLAN DE ACCIÓN PARA FOMENTAR EL EUSKERA PERIODO 2019-2022.

Ikusirik Euskarako Batzorde Informatiboak 2019ko apirilaren 1(e)an egindako bilkuran emandako diktamina.

Visto el dictamen emitido por la Comisión Informativa de Euskera, en sesión celebrada el día 1 de abril de 2019.

Ikusirik 2019ko apirilaren 1eko Euskara Batzordean "Euskara Sustatzeko Ekintza Plana (ESEP) Lasarte-Orian 2019-2022"aurkeztu dela.

Bozkatzera jarrita, Lasarte-Oriako Udalbatzarrak AHO BATEZ, honako akordioa hartzen du:

**Lehena eta bakarra.-** "Euskara Sustatzeko Ekintza Plana (ESEP) Lasarte-Orian 2019-2022"onestea.

7.- ESKOLAKO MATERIALA EROSTEKO FAMILIENTZAKO LAGUNTZEN ETA LASARTE-ORIAKO MERKATARITZAREN ALDEKO BABESAREN OINARRIEN ALDAKETAREN ONARPENA.

7.- APROBACIÓN DE LA PROPUESTA DE MODIFICACIÓN DE BASES DE LAS AYUDAS A LAS FAMILIAS Y APOYO AL COMERCIO DE LASARTE-ORIA PARA COMPRA DE MATERIAL ESCOLAR.

Ikusirik Kultura eta Hezkuntzako Batzorde Informatiboak, 2019ko apirilaren 2ko bilkuran emandako diktamina.

Visto el dictamen emitido por la Comisión Informativa de Cultura y Educación, en sesión celebrada el día 2 de abril de 2019.

Bozkatzera jarrita, Lasarte-Oriako Udalbatzarrak AHO BATEZ, honako akordioa hartzen du:

Sometida a votación, el Pleno del Ayuntamiento de Lasarte-Oria por UNANIMIDAD, toma el siguiente acuerdo:

**Lehena eta bakarra.-** Eskolako materiala erosteko familientzako laguntzen eta Lasarte-Oriako merkataritzaren aldeko babesaren oinarrien aldaketa ONESTEA.

**Primero y único.-** APROBAR la modificación de bases de las ayudas a las familias y apoyo al comercio de Lasarte-Oria para compra de material escolar.


Kale Nagusia 22, 20160 Lasarte-Oria (Gipuzkoa) | ✆ 0034 943 376055 | ✉udala@lasarte-oria.eus | IFZ/NIF P2009500F

8.- LASARTE-ORIAN MERKATARITZAKO, OSTALARITZAKO ETA ZERBITZU PERTSONALETAKO ENPRESA TXIKIAK SORTZEN LAGUNTZERARREN, LEHIA ASKEAN DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO OINARRI ESPEZIFIKOEN ONARPENA.

Ikusirik Sozioekonomiako Batzorde Informatiboak, 2019ko apirilaren 2ko bilkuran emandako diktamina.

Bozkatzera jarrita, Lasarte-Oriako Udalbatzarrak AHO BATEZ, honako akordioa hartzen du:

**Lehena eta bakarra.-** Lasarte-Orian Merkataritzako, Ostalaritzako, eta zerbitzu pertsonaletako enpresa txikiak sortzen laguntzearren, lehia askean diru-laguntzak emateko oinarri espezifikoak ONESTEA.

8.- APROBACIÓN BASES ESPECÍFICAS PARA LA CONCESIÓN DE SUBVENCIONES EN RÉGIMEN DE LIBRE CONCURRENCIA DE APOYO A LA CREACIÓN DE PEQUEÑAS EMPRESAS DE COMERCIO, HOSTELERÍA O SERVICIOS PERSONALES.

Visto el dictamen emitido por la Comisión Informativa de Socioeconomía en sesión celebrada el día 2 de abril de 2019.

Sometida a votación, el Pleno del Ayuntamiento de Lasarte-Oria por UNANIMIDAD, toma el siguiente acuerdo:

**Primero y único.-** APROBAR las Bases específicas de las Subvenciones en régimen de libre concurrencia de apoyo a la creación de pequeñas empresas de comercio, hostelería o servicios personales.

9.- LASARTE-ORIAKO HERRITARREN AHOLKU-KONTSEILUAREN ERREGELAMENDU ARAUTZAILEAREN HASIERAKO ONARPENA.

Ikusirik Barne Erregimeneko, Herritarren Parte Hartzeko eta Gardentasuneko Batzorde Informatiboak, 2019ko apirilaren 4ko bilkuran emandako diktamina.

Lasarte-Oriako Auzoen Aholku-Kontseiluaren erregelamendu Arautzailea aurkezturik, emendakinak aurkezteko epea amaitu ondoren (EH BILDUK aurkezturiko 4 emendakin) eta aurkezturikoak 2019ko urriaren 1eko batzorde informatiboan eztabaidatu eta bozkatu ondoren, testuan sartzen dira aurkeztutako lau emendakinetatik onetsitako hiru emendakinak.

9.- APROBACIÓN INICIAL DEL REGLAMENTO REGULADOR DEL CONSEJO ASESOR VECINAL DE LASARTE-ORIA.

Visto el dictamen emitido por la Comisión Informativa de Régimen Interior, Participación Ciudadana y Transparencia, en sesión celebrada el día 4 de abril de 2019.

Presentado el Reglamento regulador del Consejo Asesor Vecinal de Lasarte-Oria, una vez finalizado el plazo de presentación de enmiendas (4 enmiendas presentadas por EH BILDU) y tras proceder a su debate y posterior votación en la Comisión Informativa de 1 de octubre de 2019, se incluyen en el texto las tres enmiendas aprobadas de las cuatro presentadas.



Kale Nagusia 22, 20160 Lasarte-Oria (Gipuzkoa) | ✆ 0034 943 376055 | ✉udala@lasarte-oria.eus | IFZ/NIF P2009500F

Ikusirik 2019ko martxoaren 29ko datarekin emandako txosten teknikoa, zeinetan nabarmentzen baita, araua lantzeko prozeduran herritarren parte-hartzea areagotzeko helburuarekin, Udalak hilabeteko erakustaldi publikoa ireki zuela Lasarte-Oriako Auzoen Aholku-Kontseiluaren Erregelamendu Arautzaileari buruzko proposamenak jasotzeko, baina epe horretan inork ez duela iritzirik edo aportaziorik aurkeztu.

Visto el informe técnico emitido al respecto, de fecha 29 de marzo de 2019, en el que se destaca que con el fin de incrementar la participación de la ciudadanía en el procedimiento de elaboración de la norma, la Corporación abrió un período de exposición pública por el periodo de un mes para recoger propuestas sobre el Reglamento Regulador del Consejo Asesor Vecinal de Lasarte-Oria, periodo en el que no se presentó opinión ni aportación alguna.

Aipatutako txosten horretan halaber adierazten da Lasarte-Oriako Auzoen Aholku-Kontseiluaren Erregelamendu Arautzailea onesteko Udalak aurkezturiko proposamenak betetzen dituela urriaren 1eko 39/2015 Legearen 129. artikuluan erregulazio egokirako aipatzen diren printzipioak: bereziki, gardentasunarena, destinatarioak izan daitezkeenei haren lanketan parte hartzeko aukera ematearena.

En el mencionado informe se hace constar, asimismo, que la propuesta presentada por la Corporación, de aprobación del Reglamento Regulador del Consejo Asesor Vecinal de Lasarte-Oria, se adecua a los principios de buena regulación enumerados en el artículo 129 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre: en especial, al de transparencia, al posibilitar que los potenciales destinatarios participen en su elaboración.

Bozkatzera jarrita, Lasarte-Oriako Udalbatzarrak AHO BATEZ, honako akordioak hartzen ditu:

Sometida a votación, el Pleno del Ayuntamiento de Lasarte-Oria por UNANIMIDAD, toma los siguientes acuerdos:

**Lehena.-** Hasierako izaeraz onestea “Lasarte-Oriako Auzoen Aholku-Kontseiluaren Erregelamendu Arautzailea”, honen eranskin gisa doana.

**Primero.-** Aprobar inicialmente el “Reglamento Regulador del Consejo Asesor Vecinal de Lasarte-Oria”, que se acompaña como anexo.

**Bigarrena.-** Erabaki hau erakustaldi publikoan jartzea eta interesatuei audientzia ematea hogeita hamar egunez, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita.

**Segundo.-** Someter el presente acuerdo a información pública y audiencia a los interesados por plazo de treinta días, contados a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.


Kale Nagusia 22, 20160 Lasarte-Oria (Gipuzkoa) | ✆ 0034 943 376055 | ✉udala@lasarte-oria.eus | IFZ/NIF P2009500F

10.- EH BILDU UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA "LASARTE-ORIAKO APARKALEKUEI" BURUZKOA.

10.- MOCIÓN PRESENTADA POR EL GRUPO MUNICIPAL EH BILDU RELATIVA A: "APARCAMIENTO EN LASARTE-ORIA".

EH BILDU-k hurrengoa aurkezten du bere onarpenerako:

*MOZIOA*

*2016ko maiatzaren 10eko Ohiko Udal Batzarrak aho batez adostu zuen EH Bildu eta PSOE Udal Taldeek Lasarte-Oriako aparkalekuei buruz transakzionatutako mozioa. Bertan, besteak beste, Udal Gobernuak herriko aparkalekuei buruzko prozesu parte-hartzaile bat egitea erabaki zen, eta, horren ondoren, Gobernuak ekintza-plan bat aurkeztea Zerbitzuetako Batzordean.*

*Bi urte pasa eta gero, Udal Gobernuak "orri txuria"-ren ereduan oinarritutako prozesu parte-hartzailea martxan jartzen zuela prentsan ikusita, 2018ko maiatzaren 8ko Udal Batzarrak EH Bilduk aurkeztutako "Aparkamenduei buruzko prozesu prozesu parte-hartzaile serio eta osoa egitearen alde"-ko mozioa onartu zen EH Bildu, ADLOP eta EAJren bozkekin. Akordio honetan, herritar, eragile eta auzo elkarteekin landu ahal izateko, aholkularitza teknikoaren kontratazioa adosten zen prozesua gidatzeko.*

*2019ko apirilean gaude, urtebete pasa da azken akordio honetatik, eta orduan planteatzen genuen eskakizun berbera mahai gainean jartzeko beharrean gaude berriro, eta 2018ko mozioaren zioetan esaten genuena errepikatu behar dugu berriz: parte-hartze prozesu bat modu serioan aurrera eramatea eskatzen dugu. Prozesu partehartzaileak martxan jartzerakoan fundamentu handiagoaren jokatzea eskatzen dugu. Nola da posible, parte-hartze prozesu bat aurrera eramateko, diseinua inolako aholkularitza teknikorik gabe egitea? Nola da posible parte-hartze prozesu bat, herritar, eragile eta elkarteekin bildu eta Udalak dituen azterketak eta txostenak konpartitu gabe? Egon daitezkeen mota aukerak eta oztopoak herritarrekin landu gabe? Aukeraketa egiterakoan, herritarren balorazioa kontrastatu gabe? Horregatik guztiarengatik, benetako prozesua eskatzen dugu, serio eta osoa, aholkularitza teknikoaren gidapean, herritar, eragile, auzo elkarteekin eta abarrekin landuko dena.*

*Hau guztia kontutan hartuz, Lasarte-Oriako Udal Batzarrak honako akordioa onartzen du:*

*1.- 2018ko maiatzaren 8ko Udal Batzarrean onartu zen moduan, aparkalekuei buruzko parte-hartze prozesua aurrera eramateko aholkularitza teknikoa kontratatzea.*

*2.- Aholkularitza tekniko horrek parte-hartze prozesuaren diseinuaren berri ematea udaleko zinegotzi guztiei Barne Erregimeneko Batzordean.*

*3.- Parte-hartze prozesua martxan jarriko da aholkularitza teknikoak behin Barne Erregimeneko batzordean prozesuaren diseinuaren berri eman ondoren.*

*****************************************************


Kale Nagusia 22, 20160 Lasarte-Oria (Gipuzkoa) | ✆ 0034 943 376055 | ✉udala@lasarte-oria.eus | IFZ/NIF P2009500F

*MOCIÓN*

*El Pleno municipal celebrado el 10 de mayo del 2016 aprobó por unanimidad la moción transaccional presentada por los Grupos Municipales de EH Bildu y PSOE en relación con la situación del aparcamiento en Lasarte-Oria. En dicho acuerdo, entre otras cuestiones, se recogía la realización por parte del Gobierno Municipal de un proceso participativo acerca de los aparcamientos en el municipio y la posterior presentación de un plan de actuación en la Comisión de Servicios.*

*Transcurridos dos años, y tras constatar a través de la prensa la puesta en marcha de un proceso participativo basado en el modelo de la "hoja en blanco", el Pleno Municipal celebrado el 8 de mayo del 2018, y con los votos de EH Bildu, ADLOP y PNV, aprobó la moción "A favor de hacer un proceso participativo serio y completo en relación con el Aparcamiento" presentada por EH Bildu. En este acuerdo se recogía la contratación de una asesoría técnica bajo cuya dirección se trabajase el proceso de la mano de ciudadanía, agentes y asociaciones de vecinos.*

*Estamos en abril del 2019, ha pasado un año desde este último acuerdo, y nos encontramos en la necesidad de poner sobre la mesa las mismas solicitudes que planteábamos en aquel momento: solicitamos que se ponga en marcha un proceso participativo de verdad, serio e integral, no un proceso realizado sin ningún asesoramiento técnico. Pedimos mayor seriedad a la hora de llevar a cabo los procesos participativos. ¿Cómo es posible, de cara a realizar un proceso participativo, hacerlo sin contar con ningún asesoramiento técnico? ¿Cómo es posible realizar un proceso participativo sin reunirse con ciudadanía, agentes y asociaciones y sin compartir los estudios e informes de los que el Ayuntamiento dispone? ¿Sin explicar a la ciudadanía las opciones y dificultades que pueda haber? ¿Sin contrastar con la ciudadanía a la hora de realizar la elección? Es por todo ello por lo que pedimos que se realice un proceso participativo de verdad, serio e integral, bajo la dirección de una asesoría técnica, que trabaje con ciudadanía, agentes y asociaciones de vecinos.*

*Considerando lo anterior, el Peno Municipal de Lasarte-Oria adopta el siguiente acuerdo:*

*1.- Tal y como fue acordado en el Pleno Municipal del 8 de mayo del 2018, llevar a cabo la contratación de un servicio de asesoramiento técnico para la puesta en marcha del proceso participativo.*

*2.- Que la empresa contratada para dicho asesoramiento técnico dé cuenta, ante los concejales en la Comisión de Régimen Interior y Participación, del diseño del mismo.*

*3.- El proceso participativo comenzará una vez que haya sido presentado el diseño del mismo en la Comisión de Régimen Interior y Participación.*

Bozkatzera jarrita mozioa, Lasarte-Oriako Udalbatzarrak aldeko zortzi botorekin (3 EH BILDU, 3 ADLOP, 2 EAJ-PNV), kontrako zazpi botorekin (7 PSE-EE-PSOE) eta abstentzio batekin (1 PP) ONARTU egiten du hura.

Sometida a votación la moción, el Pleno del Ayuntamiento de Lasarte-Oria con ocho votos a favor (3 EH BILDU, 3 ADLOP, 2 EAJ-PNV), siete votos en contra (7 PSE-EE-PSOE) y una abstención (1 PP) APRUEBA la misma.


Kale Nagusia 22, 20160 Lasarte-Oria (Gipuzkoa) | 0034 943 376055 | udala@lasarte-oria.eus | IFZ/NIF P2009500F

*********************************************

Boto azalpenean hurrengo zinegotziak hartzen dute parte: EAJ-PNV Udal Taldeko Bozeramailea, Antxordoki jauna; Udal Talde Sozialistatik, Valdivia jauna.

En explicación de voto intervienen los concejales: Sr. Antxordoki, Portavoz del Grupo Municipal EAJ-PNV; Sr. Valdivia, del Grupo Municipal Socialista

*********************************************

## 11. – GALDERA ETA ERREGUAK.

## 11.-RUEGOS Y PREGUNTAS.

Puntu honetan honako zinegotziek hartzen dute parte: ADLOP Udal Taldeko Bozeramailea, Naya jauna; EH BILDU Udal Taldetik, Lizarraga jauna. Alkate jaunak hauek egindako galdera eta erreguei erantzuten die.

En este punto intervienen los concejales: Sr. Naya, Portavoz del Grupo Municipal ADLOP; Sr. Lizarraga, del Grupo Municipal EH BILDU. El Sr. Alcalde responde a las preguntas y ruegos realizadas por estos.

Eta beste aztergairik ez dagoenez gero, goiburuan adierazitako eguneko 19:00 direlarik, lehendakari jaunak amaitutzat eman du batzarraldia, eta haren akta hau jaso da. Nik, idazkariak, akta honen edukiaren fede ematen dut.

Y no habiendo más asuntos que tratar, siendo las 19:00 horas del día indicado en el encabezamiento, el Sr. Presidente da por terminada la sesión, de la que se levanta la presente acta, de cuyo contenido yo, el secretario, doy fe.


Kale Nagusia 22, 20160 Lasarte-Oria (Gipuzkoa) | ✆ 0034 943 376055 | ✉udala@lasarte-oria.eus | IFZ/NIF P2009500F